

AGRUPACION CULTURAL ORERETA ERRETERIAKO IKASTOLA

ORERETA IKASTOLAKO
LEHENDAKARIA Imanol Kortajarena.

Erreteria, 1984 Ekainak 26

Agur t'erdia:

Urtero Euskararen alde egiten diren ekintzen artean Kilometroak dugu garrantzitsuenetako bat eta aurtengoaren antolaketa Orereta Ikastolari dagokio zuetariko askok jakingo duenez.

Jendetza izugarria biltzen duen festa dugu hau; 100.000 pertsona, gehiago ez badira, festa egun alaia igaroko dute Erreterian datorren Urriaren 7'an. Ibilbidea eginaz Añabitareraino iritsiko dira guztiak, bitartean festak, dantzak, musika etabar izango dituztelarik.

Ikastolako Gida Batzordeak Mikel Erriondo izendatu zuen koordinatzaile Orokorrekin, eta honek berriz bere talde laguntzailea. Lehen bezelaxe Ikastolaren aldeko guztiak izango dira!! Lehengo Ikastolazaleak eta oraingoak, gizon eta emakumeak, 1.300/1.500 pertsona inguru, jain haundi hau antolatzen herri elkarte bidez.

Ilusio handiz ari gara lanean, guztia behar bezala gerta dadin eta ipinitako helburuak gainditu ditzagun.

Erreteriarren izena goi mailan utzi nahi genduke urtean zehar egiten diren kultur ekintzei (Musikaste, Eskulangintza azoka...) bat gehiago erantsiz eta ongi erantsiz.

Euskarari bultzakada bat eman; euskararentzat lekua irabazi. Martxoan argitaratutako Oroitzapenean esaten

genuen erreteriarren % 15'ek mintzatzen duela euskara. Xenpelarren herrian euskara bultzatu egin behar dugu. 20 urtez ari gara umeak euskaraz hezitzen; emaitza onak lortu ditugu eta ikasle izan direnen artean euskararen erabilkera indarrez berpizten ari dela nabaritzen dugu. Ez gara gu bakarrik lan honetan ari garenok, Beraungo Ikastola, Udal Euskaltegia... lan berean ari dira, asko gara eta asko izango gara Kilometroak-84 egunean euskararen alde gaudela adieraziko dugunak.

Eskola publikoa garela utzi behar dugu; gure eskola herrikoa da eta bere metodo, antolaketa eta helburuak ez dira pribatuak; ez gara ugarte bat eta ez dugu izan nahi ere. Euskal eskola bakar bat nahi dugu etorkizunerako eta ez dugu uste gaurregungo transferitua bezala izango denik ez eta ere Ikastola bezalakoa. Ikastolak eraberdindu behar ditugu lehen-dabizi.

Ikastolak jaiotako era gogoan izanik, irakasleen lehen-go eta oraingo jarrera, pedagogi erak, euskararen egoera, diru-iturriak, etab., desberdinak dira herri bakoitzean eta beharrezko bihurtu da guztia eraberdintzea. Ondorengo pauso batean eraberdindutako Ikastola eta eskola transferitua zelai berdin batetara heldu behar gara euskal eskola publikoa lortzearren.

Kilometroak eginkizuneko indarraren eraginez tresna eta instalazio egokiz osatu behar dugu Ikastola.

Erreteriarren erdi aldean (zentroan) dugun presentzia gehitu nahi genduke. Ikasle pilaka eraman behar dugu egunero Añabitarera. Arrisku handia dugu eta ordutegi zabalegiak erabili behar ditugu; gure ikasleak arratsaldean Ikastolara sartzen diren garai berean kanporatzen ari dira Europar. Urtero 22.000.000,— milioe pezetan gastatzen ditugu autobusetan. Pentsa dezagun normalki erabiltzen den sistimaz terrenu uzte eta Eusko Gobernuaren eraikitze laguntza etxe berri bat izango genduela herrian, gasolina erretzen aritu beharrean.

Herriaren erdian eraikitako etxe bat, behar bezala egindakoa gaztediaren eginkizunen mami izan behar du, ez kultur arlokoak bakarrik, baita kirolak ere, eskola ondorengo ordu librean erabili ahal eginaz.

ZERBITZU ETA UDAL ENTREPRESETAKO BATZORDEA

Laburpen gisa, aurkeztu ditugu, 1983ko ekainatik aurtengo maiatzara arte, Batzorde honek, hurrengo gaiak hartu ditu bere gain:

BAIMENAK LUZATZEA

— **Establezimendu publikoen zabaltzeak** (Taberna: Kafetegiak, Jatetxeak, eta abar...) hurrengoak onetsi dira:

- 3 taberna
- Gozotegi-Te-Areto bat
- 2 Kafetegi
- 2 Jatetxe
- «Pub» bat
- Kultur eta Kirol Elkarte bat.

Baita ere, lehendik zabaldurik ziren 3 establezimenduetan bai berriketa— lanak onetsi dira eta legeztatzeak egin dira.

— Merkatal-establezimenduak

75 merkatal-establezimenduen zabaltzeak onetsi dira

— Industri-establezimenduak

5 legeztatze-baimena lortu ziren, eta baita ere, industri-lokalen instalakuntza berriak.

— Garajeak

5 ibilgailu edo gutxiagoentzako edukia duten 4 garaje zabaltzeko baimenak lortu dira, eta 5 ibilgailu baino gehiagokoentzako edukia duten, beste 4 garaje zabaltzeko baimenak ere.

— Iraganbide Erreserbak

Edificio Partikular eta Ofizialei, Iraganbide Erreserbako, 10 baimena lortu ziren,

TABERNA ETA ANTZEKOEN ZABALTZERAKO BAIME- NEN ETENDURA

Zerbitzu eta Udal Entrepresetako Batzordearen proposamenaz, 1984ko urtarrilaren 25ean, Udalbata bildurik, hurrengoak erabaki zuen: Erreteriarren Udalbarruti osoan, Taberna, Kafetegi, «Pub», Dantzatoki, Jolastareto eta antzekoen zabaltzerako baimenen etetea, honelako iharduerak arautuko dituen udal agindua prestatu arte. Hortaz,

Udalak emandako aldeko txostenak ere, etenak geratzen dira, barne daudela aldi berean, erabaki honen aurrez aurkeztutako eskaerak.

UDAL AGINDUAK

Batzorde honen proposamenaz, 1984ko apirilaren 4an, Udalbatzak, hurrengo onetsi zuen: Edifizio Partikuletarako Iraganbide Erreserba arautzen duen Udal Aginduaren 6.artikulua, eta 3.artikuluko c) atalaren aldakuntza, behin betikoz, onetsi zituen. Lege hau, 1984ko apirilaren 26an jarri zelarik zutik. Baita ere onetsi zen behin betikoz, Gune publikoetan mahaia eta antzekoak jartzeko arauak agintzen dituen Udal Agindua, 1984ko apirilaren 26an zutik jarri zelarik.

UDAL MERKATUA

Batzorde honen txostenaren arabera, Fruitategiko 1, 13, eta 30 eta 31. postuak eskualdatu ziren; baita ere, Harategiko 13. postua, eta Arraindegiko 7 eta 16 postuak.

AUTO-TURISMOAK

Auto-turismoetako 9, 12, 18 eta 28 zenbakiko lizenzien eskualdatzea, onetsi da.

TRAFIKOA

Beraun eta Galtzaraborda auzoetako trafikoaren antolaketa onetsi da, eta baita ere sinalakuntza.

SAN MARKOSKO MANKOMUNAZGOA

Zabor-zerbitzuetarako, San Markosko Mankomunazioan barne, Oartzungo Udalarari ematea onetsi da, eskubidezko partaide bezala.

HERRI ARGITERIA

Herri argiteriarentzako materiale-erosketa onetsi da, hurrengo kostoa duela: 2.270.962. peseta

BESTELAKO ERABAKIAK

- Honokoak hartu dira, Batzordearen proposamenaz:
- Zentolen Hilerrian, 40 hil-habien eraikuntza.
- Hiri-instalakuntzetarako, arketen tapa eta burdinsareen erosketa.
- Udal lantaldeentzat, konprimagailu baten erosketa.
- Aroztegi-lantegiarentzat, erregruesagailu baten erosketa.
- Hesien erosketa.

BATZORDEAREN OSATZAILEAK:

Lehendakari: Jesus Oficialdegui

Bokalak: Venancio Alonso

Jokin Toledo

Imanol Iñarra

Pedro Zulet

COMISION INFORMATIVA DE SERVICIOS Y EMPRESAS MUNICIPALES

Como resumen de los temas tratados por esta Comisión Informativa de Servicios y Empresas Municipales durante el período comprendido entre junio de 1983 y mayo del presente año, se han de señalar los siguientes:

CONCESION DE LICENCIAS

— **Aperturas de Establecimientos Públicos** (Bares, Cafeterías, Restaurantes, etc.). Durante el indicado período se autorizaron en esta Villa las siguientes aperturas:

- 3 Bares
- 1 Pastelería-Salón de Té
- 2 Cafeterías
- 2 Restaurantes
- 1 Pub
- 1 Sociedad Deportivo-Cultural

Asimismo se legalizaron y autorizaron las reformas de tres establecimientos existentes con anterioridad.

— **Establecimientos Comerciales.** Se han autorizado la apertura de 75 establecimientos comerciales.

— **Establecimientos Industriales.** Se concedieron cinco licencias de legalización y nueva instalación de locales industriales.

— **Garajes.** Se autorizó la apertura de cuatro garajes de cinco o menos vehículos y otros cuatro garajes con capacidad superior a cinco vehículos.

— **Reservas de Paso.** Se concedieron diez nuevas licencias de Reserva de Paso a Edificios Particulares y Oficiales.

SUSPENSION DE LICENCIA DE APERTURA DE BARES Y DEMAS ESTABLECIMIENTOS PUBLICOS

A propuesta de la Comisión de Servicios y Empresas Municipales el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 25 de Enero de 1984 acordó «la suspensión de licencias de apertura de bares, restaurantes, cafeterías, pubs, salas de fiesta, salas de juegos recreativos y demás establecimientos análogos, en la totalidad del término municipal de esta Villa, a fin de que se redacte una ordenanza municipal que regule la instalación y funcionamiento de tales actividades». Quedan excluidas aquellas solicitudes a las que la Corporación ha dado su informe favorable, y también aquellas que anteriormente a este acuerdo hayan sido presentadas.

ORDENANZAS MUNICIPALES

A propuesta de esta Comisión, el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 4 de abril de 1984 acordó:

- La aprobación definitiva de la Modificación de los artículos 3.º, apartado c) y artículo 6.º de la Ordenanza Municipal de Reserva de Paso a Edificios Particulares, que entró en vigor el 26 de abril de 1984.
- La aprobación definitiva de la nueva Ordenanza Reguladora de la instalación de Mesas de Café y Veladores en Espacios Públicos que entró en vigor el 26 de abril de 1984.

MERCADO DE ABASTOS

El Ayuntamiento Pleno, previo informe de esta Comisión de Servicios, acordó autorizar el traspaso de los puestos números 1, 13 y 30 y 31 de Frutería; 13 de Carnicería; y 7 y 16 de Pescadería del Mercado de Abastos.

AUTO-TURISMOS

Se autorizó la transmisión de las licencias números 9, 12, 18 y 28 de Auto-turismos.

TRAFICO

Se aprobaron la Ordenación del tráfico y señalización de los barrios de Beraun y Galtzaraborda.

MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

Se acuerda la integración del Ayuntamiento de Oyarzun como miembro de Pleno Derecho, en la Mancomunidad Municipal de San Marcos para el servicio de basuras.

ALUMBRADO PUBLICO

Se acordo la adquisición de material de reposición del alumbrado público por un importe de 2.270.962, ptas.

OTROS ACUERDOS

A propuesta de la Comisión de Servicios y Empresas Municipales, se adoptaron los siguientes acuerdos:

- Construcción de 40 nuevos nichos en el Cementerio de Centolen.
- Adquisición de rejillas y tapas de arquetas de fundición para instalaciones urbanas por importe de 968.736 ptas.
- Adquisición de un compresor para las brigadas municipales.
- Adquisición de una máquina regruessadora para el taller de carpintería.

— Adquisición de vallas.

Composición de la comisión:

Presidente

Jesús Oficialdegui

Vocales

Venancio Alonso

Jokin Toledo

Imanol Iñarra

Pedro Zulet

Rentería 1.º de junio de 1984,

El Presidente de la Comisión,

HIRIGINTZA BATZORDEAREN UR, MENDI ETA LANDEAKO AZPIBATZORDEA

Lehendakari : Venancio Alonso (EAJ)

Kontzejalak : Jose Luis Elorza (PSE-PSOE)

Juan Mari Urruzola (HB)

Imanol Iñarra (EE)

Andoni Otaegi (EE)

Baserritarren laguntzarako, eta elkar-lanerako Batzordea. Betidanik uste izan dugu, baserritarra, Euskal Herriaren oinarri-euskarri dela. Badirudi beraiek mantentzen dutela, euskal tradizioa eta aintzinako ohiturak eta bizimodua.

Beren izaera jatorrak, egunero haiekin gustora egoteko aukera ematen du: ez dute esijitzen, eskatzen baizik, eta gehienetan arrazoiarekin. Nekazaritza eta Baserritar-arloa, beti bazterturik izan dugu, baina jabetu gara bere garrantziaz, eta aurrerakoan, elkarren arteko lan handia egiteko asmoa dugu.

Aurten, azpimarratzekoa da, Eskualdeko Ganadu-Lehiaketa. 1936tik, ez da horrelakorik ospatu. Iaz ospatzeko asmoa zegoen, baina ezinezkoa izan zen, «korrikalari» gehiegi bait ziren, baina aurten, uztailaren 25ean ospatuko dugu, Santio Egunean.

Berrikuntza bezala esan behar da, baserri guztietan, telefonoa jartzen saiatzen ari garela. 54 eskatuak izan dira, baina oztopoak ditugu, Telefono Konpainiak, zailtasunak jartzen bait ditu. Halere, Foru Aldundiak luzatzen duen laguntzarekin batera, Udalak, bi urteen barru, lortuko duela, uste dugu.

Baserraldeko Elektrapenari buruz, gehiena eginik dagoela, laster burutuko delakoan gara.

Herri-bideen konponketan, buru belarri gara sartuak baserritarrekin batera. Iaz, 15 milioi inguru gastatu dira, baina bide guztiak ez dira egin, eta aurten bukatzea pentsatzen dugu, edo gutxienez, bide gutxi geratuko direla, konponketarik gabe.

Eta Listorretako bidea zer? esango dugu... baina Bi-deetako Injineruak dio, uholdeek hondatu dutela, eta hortaz, dagokigun laguntza jasoko dugula uste dugu, Eusko Jaurlaritzaren aldetik, edo Foru Diputazioaren aldetik, eta azkenean egingo dugu.

Azpibatzearen zereginak:

- Basa Jabetzaren zaintzea eta berlandatzea.
- Herriaren erabilketarako, urez baliatzea.
- Ikonako zerbitzuekin, harremanak.
- Ibai-arrantza, ehiza eta ehizarako barrutien jartzea.
- Mendialdeko elektra hariterien zaintzea.
- Baserritarrei laguntza.
- Mendialdeko Elektrizitatea.
- Herri Bideen konponketa.



EUSKARARAKO BATZORDEA

Osatzailak:

Lehendakari Jose Luis Elorza

Kontzejalak : Andoni Otaegi, Jose Agustin Aguirre, Juan M.º Urruzola, Jokin Toledo.

Eta Euskaltegiaren ordezkaria, «Euskal Herrian Euskaraz», udal itzultzailea, Ibai-alde Elkartea, eta Herriko Auzoelkartea.

Batzordearen historia, nahiko berezia da: 82ko maiatzaren 28an sortutako Batzordea, azpibatze bihurtzea proposatu zuen 83ko maiatzaren 27ko Batzorde Iraunkorrak. Batzordearen osatzailak eta herriko taldeak, aho ba-